

A2.2Maila

Gaurko gazteek ere edan egiten dute.

Ariketa hauek egin ahal dituzu:

- Irratiko erreportajea entzun eta galderei erantzun.
- Talde txikitan komentatu lehengo eta gaurko ohiturak, eta gero taldearen aurrean azaldu.

Ulertu al duzu irratsaioa?

Irratiko erreportaje honetan, kazetariak Arabako gazteek zer erlazio duten alkoholarekin kontatuko dute. Gazte batzuekin hitz egingo dute. Entzun erreportajea eta esan esaldiak gezurra edo egia diren.

	Egia	Gezurra
Gazte batek aitortzen du bere buruaren kontrola galdu zuela behin baino gehiagotan, alkohola edan ondoren.		
Jaietan eta txosnetan edaten dute normalean.		
Kalimotxoia edaten dute baina likorerik ez.		
Debekatuta egon arren, herrian erraz lortzen dute alkohola.		
Arabako herri txikietan 15-16 urterekin hasten dira edaten.		
Arabako gazteek ez dute egunero edaten, baina bai asteburuero.		
Arabako gazte gehienek edaten dute alkohola. Lagun artean edaten dute eta gurasoek ez ikusteko moduan.		

A2.2Maila

Guk kubatak edaten genituen

Erreportaje honetan, gaurko Arabako gazteei buruzko datuak ikusi ditugu. Eta gure garaian edo herrian, nola ziren kontu horiek? Komentatu talde txikitan ondoko puntu hauek; bukatzeko, komentatu guztien aurrean emaitzak.

	Adina	Edariak	Noiz edan	Kontrola
Gaurko gazteek	13 urte aurretik hasten dira alkohola edaten.	Kalimotxoa eta likoreak edaten dituzte.	Festetan edaten dute batez ere.	Alkohola edaten dute baina, normalean ez dute kontrola galtzen.
Zure garaian				

Gure iraganeko esperientzien berri emateko, **ohiturazko aditz-formak** erabiltzen ditugu normalean (**joaten ginen, hartzen genuen...**). Honelako esaldiak erabili ahal dituzu:

- Gu 15-16 urterekin **hasten ginen** alkohola edaten.
- Gure garaian kopak **hartzen genituen**: pattarra, whiskia... Eta kubatak ere bai: ronarekin, ginebrarekin...
- Nik uste dut alkoholik gabe ere ono pasatu ahal dela, baina tradizio handia dago alkohola edateko eta...

A2.2Maila

TRANSKRIPZIOA

Kazetari gizonezkoa. Arabako landa-eremuan gazteak Euskadiko beste lekuetan baino lehenago hasten dira alkohola edaten. 12 urte eta erdirekin probatzen dute lehen aldiz alkohola. Hala dio Arabako Foru Aldundiak aurkeztu duen txosten batek. Arabako herrietan, herri txikietan bereziki, 3 gaztetatik batek ohikoa du alkohola edatea txosten horren arabera. Baina zer diote horren inguruan ikerketako protagonistek? Ba Arabako herrietako gazteekin izan da Maria Garde lankidea eta alkoholaren kontsumoaren inguruan hizketan aritu da gazte horiekin.

Kazetari emakumea. Araba landa-eremuko 15 eta 16 urte arteko gazteek onartzen dute 12-13 urteetatik alkohola edaten dutela. Hala ere, normalean ez dute astebururo edaten, egun zehatzetan egiten dute. Adibidez, herriko jaietan edo Gasteizkoetan. Gehienetan litroak egiten dituzte kalean, edo txosnetan tragoak hartzen dituzte.

GAZTEA 1. 12 urte edo horrela.

GAZTEA 2. 12-13.

GAZTEA 3. Gutxitan...

GAZTEA 1. ...alkohola edaten dugu.

GAZTEA 3. Ez egunero baina festetan bai.

GAZTEA 1. Bai.

GAZTEA 1. Astebururo ez, e? Festetan eta horrela kuadrilarekin.

GAZTEAK. Lagunekin.

GAZTEA 2. Ba ikastolan, hemen edo nagusirik ez dagoen lekuetan.

GAZTEA 1. Nik botelloia,

GAZTEA 2. Botelloia gehiago...

GAZTEA 1. Eta gero ba Gasteizko jaietan ere txosnak.

GAZTEA 3. Hemengo herriko jaietan ere txosnak.

Kazetari emakumea. Likore eta freskagarri-nahasketa, kalimotxo eta tokiko edariak kontsumitzen dituzte.

GAZTEA 1. Vodka, lima, adibidez.

GAZTEA 2. Kalimotxo. Eta horrelakoak.

A2.2Maila

GAZTEA 3. Likoreak eta horrela.

GAZTEA 2. Eta hemen dago gero, Marachito?, txosnetan dagoen edari bat, onena...

GAZTEA 3. Horida.

GAZTEA 2. Zukua baino hobea.

Kazetari emakumea. Gazteek ondo pasatzeko helburuarekin edaten dute lagunartean, hori bai, ahal dela guraso eta helduetatik urrun.

GAZTEA 4. Pixpa bat piripi joatea eta gurasoek harrapatzea...

GAZTEA 3. Ni bi alditan harrapatu ninduten, eta ez ziren haserretu baina izan zen dezepzio bat haientzat.

Kazetari emakumea. Hala ere, herrian alkohola erostea ez da aukera bat nerabe hauentzat. Beraz, era guztietako trikimailuak erabiltzen dituzte edariak lortzeko.

GAZTEA 3. Joaten gara Gasteizera, eta bertan dauzkagu kontaktu batzuk. Txinoetan ba askotan pasatzen dizkigute.

Kazetari emakumea. Alkoholaren kontsumoan beste gauza guztietan bezala hasi ziren, lehenengo tragoak probatuz. Ikasketa-prozesuan atsekabeak ere izan dituzte.

GAZTEA 4. Nengoen mozkortuta eta saiatu nintzen leku batetik alkohol gehiago lapurtzen. Eta erori nintzen buruz behera lurrera ba ia bi metrotik edo horrela.

GAZTEA 3. Geratu naiz inkontziente bi aldiz alkoholagatik. Lehenengo aldia: heldu nintzen supermozkortuta etxera eta eta geratu nintzen inkontziente ja etxean. Baina bigarren aldia izan zen ja hemengo jaietan. Izan zen hemen juxtu, ikastolan; pilo bat edan nuen eta inkontziente total. Eta ba oso txarto.

Kazetari emakumea. Hala ere, egun gazte horiek alkohola edaten jarraitzen dute. Baina kontsumo arduratsuaren alde agertzen dira.

GAZTEA 3. Edaten baduzu, kontrolarekin edatea...

GAZTEA 4. Kontrolarekin.

GAZTEA 3. Ze azken finean pasatzen bazara, ez? Ondo pasatzeko egiten duzun zerbait pasatzen da infernu bat izatera. Asike, kontrolarekin egitea.

Kazetari emakumea. Finean, landa-eremuko arabar gazteak dibertitzeko asmoz edaten dute lagunartean, pixkanaka-pixkanaka neurria hartzen dioten bitartean.

A2.2Maila

ULERMENAREN ERANTZUNAK

Gazte batek aitortzen du bere buruaren kontrola...

EGIA

Jaietan eta txosnetan edaten dute normalean.

EGIA

Kalimotxoa edaten dute baina likorerik ez.

GEZURRA

Debekatuta egon arren, herrian erraz lortzen dute alkohola.

GEZURRA

Arabako herri txikietan 15-16 urterekin hasten dira edaten.

GEZURRA

Arabako gazteek ez dute egunero edaten, baina bai asteburuero.

GEZURRA

Arabako gazte gehenek edaten dute alkohola.

GEZURRA

Lagun artean edaten dute eta gurasoek ez ikusteko moduan.

EGIA